



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ERGOIEN

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2022-10-04	19:05	21:22

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:				
Herritarrak:	Euskaraz: 9		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 5		Gizonezkoak: 4	
	<30 urte:	31-50 urte: 4	51-65 urte: 4	>66 urte: 1

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Udal ordezkariak bileraren gai zerrenda eta dinamika azaldu dute.
Legegintzaldiko balorazioa	<p>Lerro estrategikoak azaldu dira.</p> <ul style="list-style-type: none">- Elikadura burujabetza: Lurbizi programaren baitan, ekintza ezberdinak daude. Lehen sektorearekin harremanak indartu dira, Larre plana martxan dago eta dirulaguntza lerroak martxan jarri dira.- Energia trantsizioa: 2030erako dauden helburuak betetzeko, lan lerro ezberdinak daude: azpiegiturak berritzeko inbertsioak, energia berriztagarrien instalazioak, herritarrekin berriztagarrien kooperatibak sortzea eta mugikortasuna hobetzeko proiektuak.- Zaintza: Pandemiak erakutsi digu zaintzaren garrantzia zein den. Behar den zaintza sare sortzeko hiru egitasmo daude: etxeko zerbitzua indartzea, Gizarte Zerbitzuen bulegoak lekuz aldatzea eta Zaintzadi proiektua. Azken honekin, bakardade ez hautatuan egon daitezkeen pertsonen diagnostikoa egin nahi da eta zaintza sare publiko komunitarioa bat sortzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Kultura: Alde batetik Kultur etxea daukagu laister amaituta egongo dena eta lantalde bat horren kudeaketa egiteko eredia pentsatzen ari da. Horrez gain, ondarearen inguruan mahaia sortu zen eta bertan egitasmo ezberdinak landu dira, besteak beste, Arizmendienea etxe museo eta ondare jardunaldiak. <p>Guzti hau egiteko hiru zeharlerro daude: euskara, berdintasuna eta parte hartzea.</p> <p>Altzibarko urbanizazioa eta Gurutzeko bidegorriaren inguruko galderak egin dituzte auzotarrek. Proiektuen xehetasunak azaldu dira.</p> <p>Urkabe Baitako etxebizitzetan Oiartzuarrei lehentasuna emateko eskatzen da.</p>
<p>2023ko aurreikuspena</p>	<p>Zergak eta tasak 1,5 igoko dira orokorrean.</p> <p>Aipatzen da udala oso egoera onean dagoela, beharrezkoa balitz prestamo bat eskatzeko aukera izango luke.</p>
<p>Auzoa</p>	<p>Legegintzaldian egindako lanen inguruan azalpenak eman dira.</p> <p>Auzoan gauza gutxi egin dela aipatzen dute auzotarrek.</p> <p>Auzotar batek aipatzen du Ergoien garapena geratuta dagoela. Jabetzak mugitzen ez diren bitartean, garapenik ez dago. Udalak presioa egin beharko luke garapena martxan jartzeko. Bestela auzoan ez da ezer egingo.</p> <p>Askotan aipatu da garbitasuna ez dela egokia auzoan. Kale garbitzaileak ez dira agertu ere egiten, hondakinak jasotzeko kamioiak espaloia hautsi du markesinaren inguruan. Eskaerak sartu dira eta ez da ezer lortu.</p> <div data-bbox="571 1393 1345 1783" data-label="Image">  </div> <p>Auzoan badago zer egina:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Frontoia estali daiteke. Txukundu behintzat. - Markesinaren inguruko espaloia konpondu daiteke. - Uztapide plazan parke bat.

- Tolare pareko aparkalekua konpondu.
- Gaztañetik Iriberrira argiteria jartzea.
- Gaztañetik Altzibarrera doan bidean norabidea ez da errespetatzen. Neurriak hartu.
- Olaizolako zubian autoak kontatzeko sistema jartzea.

Trafikoa eta abiadurarekin arazoak daude. Aldundiari eskaera egin dio auzotar batek eta erantzuna jaso du. Aldundiak ez du ekintza zehatzik egingo.

Auzoa asko aldatu da, Arritxulo dago, poligonoa, Arditurri. Kamioiak eta autobusak pasatzen dira abiadura handian. Oiartzungo puntu beltzetako bat dela dio auzotar batek. Edozein momentutan zerbait pasatzeko arriskua dagoela diote.

Bere garaian, Olaizolako zubia zabaltzea ere eskatu zen oinezkoentzat.

Irudipena dago auzoa utzita geratu dela. Atzean geratu dela.

Energia berriztagarrien inguruan, Ergoien garai batean zentral hidraulikoetan eredugarria zen. Egurraren erabilera ere bai. Gure ingurunea turismoaz haratago erabiltzen hasi beharko genuke, uraren energia, basoen ustiaketa. Ergoien hori galdu da. Energiaren burujabetzan, mendiak polita izateaz gain praktikoa ere izan behar du. Bi proposamen:

- Basoen ustiaketa biomasara bideratzea.
- Nafarroan bezala, egur loteak lortzeko aukera ematea.

Egurrarekin lotuta, eroritako zuhaitzen egurra jasotzeko aukera erraztu beharko litzatekeela uste dute auzotarrek.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8
bilera ongi gidatu da	7,88
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	7,88
Auzotar kopurua	5,25
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8,13
Saioa probetxugarria izan al da?	7,86
Egunaren egokitasuna	7,5
Orduaren egokitasuna	7,88



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



Lekuaren egokitasuna	8,25
----------------------	------